

ERREPORTAJEA HIL ONDOREN ZER EGIN GORPUAREKIN **GEHIGARRIA** KILIBARREN
KIROLA SANLO ELGOIBAR ESKUBALOI TALDEEN AURKEZPENAK

BARRREN

ASTEKARIA

ELUOITBARKUASIEKAKITA · ZUZUKO URRIAREN 29a/A. URTEA/422. ZKIA

Hil eta gero....

"DERRIORREZKOA GAUZA BAT BAKARRA: HILTzea" (esaera zaharra)

7.1[<] a⁻⁷ 170 RENT

GARBIKETA • MANTENIMENDUA
AUTOEN ALOKAIKUA

Sigmaکو industrialdea - 7. eta 8. pabiloiak

Tel.: 942 103 287

**MANTENDU EZAZU
ZURE AUTOA
GARBI ETA PREST!**

**GARBIKETA
2,50 €**

**GARBIKETA
AUTOMATIKO PUBLIKOA**



**MANTENIMENDU OROKORRA • OLIO, BALAZTA
eta PNEUMATIKOEN ALDAKETA
BARRUKO GARBIKETA INTEGRALA**

**GARBIKETA
LEHORKETA
ARGIZARIA EMATEA**

3,50 €

vnrsi rinmvp^r rts TAILERRA



**GARBIKETA
BEREZIA
4,50 €**

**SIGMAKO
INDUSTRIALDEAN
GAUDE**

11111~111L 111,



Etxe barruko arotz-lanak

Lurra

Proiektu integralak egurrean

IgOr Isasmendi
Ander Alkorta



Santa Klara, 28 behea

Tel. 943 74 40 50 • Faxe. 943 74 30 86
20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)



Lekuz aldatu gara!

ATEAK
LEIHOAK
EGURREZKO SABAIK
ARMAIRU ENPOTRATUAK
EDOZEIN MOTATAKO ZORUAK
TARIMA ARTISTIKOAK
BARANDAK
BIGA FALTSUAK etab...

BaRRen




4.100 etxetan sartzen naiz

Elgoibarko Izarrako bazkideen etxeetara permisorik eskatu gabe sartu nintzen 92ko abenduaren 24an. Jaioberrien ausardia izango zen, baina ez pentsa gainontzeko etxeetan ere berdin jokatu nuenik. Garbi neukan estimatzen ninduten etxeetara bakarrik sartuko nintzela. Eta hala, hurrengo asteetan, dozenaka elgoibartar hurreratu zitzaizkidan beraien etxera joateko gonbidapenarekin. Hasieran, lotsati aurpegiaren joaten nintzen, arduratuta. Izan ere, gero eta etxe gehiagotatik deitzen zidaten, eta ez nekien jendearen gustukoa izango nintzen. Baina, poliki-poliki, konfiantza hartzen joan naiz, eta, herriko etxe gehienetan, ostiraletako gonbidatua izaten naiz"

Estreinako astean 500 etxetara sartu bazen, hamar urte eta gero 4.100 etxetan jotzen du atea ostiralero BARRENeK. Baina ez pentsa Elgoibarko etxeetara bakarrik joaten denik. Munduko bazter askotara ailegatzen da BARREN, batzuetara berandu xamar bada ere. Mexikon bizi den Juan Jose Arrillaga elgoibartarrak esan digunez, "Nik, lana dela eta, badut Elgoibarko eta inguruko berri, baina eskertzekoa da kanpoan bizi geranoi Elgoibarko berriak emateko egiten duzuen lana. Segi gogor urtea askuan!".

Jakin nahi al duzue nora iristen den BARREN?

- . Elgoibarren, 3.390 etxetara.
- . Mendaron, 300 etxetara.
- . Euskal Herrian zehar, 339 etxetara
- . Espainiako estatuan, 49 etxetara
- . European, 7 etxetara.
- . Ameriketan, 14 etxetara
- . Australian, etxe 1 era.



Konfiantzarik ez

Gure inguruko hedabideetan apur bat erreparatzen badugu, ia egunero topatuko dugu albiste negargarri bat edo beste.

Oraitxe bertan jakin dugu Baliko atentatuan 200 lagun inguru garbitu dituztela; Israelgo armadak palestinar mordoa hil duela edo palestinar suizidaren batek autobus bat lehertu eta judu multzoa txikitu duela eta abar.

Badirudi mundu honetako arazoak etsai usteko guztiak akabatuta konpondu nahi direla, norbera betiko izango bailitzan.

Bush presidente amerikarrak Iraki eraso eta Sadam garbitu ondoren, bere armadako jeneral bat bertan agintzen ipintzea nahi ei du. Kontuan izan Sadam presidenteak oraintsu egindako galdeketan bere herritarren babes osoa jaso duela, askok diktadoretzat jotzen duten arren.

Baina Bush-en esanetan, Irakek suntsipen handiko armak ditu eta hori mendebaldeko nazioentzat mehatxu gogorra izanik, Sadam-en erregimena suntsitu egin behar da. Hori da, besteak beste, amerikar buruzagiak ipintzen duen aitzakia. Bide horretatik jarraituta beldurra eta gorrotoa zabaldu besterik ez du egingo, mendebala eta ekialdeko herri musulman eta islamdarren arteko harremanak gaiztotu, seguru asko.

Aditu batzuen ustez, Bush-en helburu nagusia Irakeko petrolio da eta horretarako Ameriketako Estatu Batuen indar politiko, estrategiko, ekonomiko eta militar guztia jarri nahi du han bere esaneko agintea ezartzeko. Asmo hau burutzeko nazioarteko laguntza bila dabil orain. Baditu laguntzeko prest dauden gobernu-buruak; beste asko, ostera, zeharo aurka.

Ingurunabar honetan Nazio Batuen Erakundeak ez du berbarik atera eta Irakera ikuskatzaileak bidaltzekotan dira bertako armategiak azter ditzaten. Nolanahi ere, Bush-en gobernuak NBERen oniritzia nahiko luke Iraken esku hartzeko, baina hala ez balitz ere, prest ei legoke bere armada sartu eta Sadam boteretik kentzeko.

Afganistanen ere Bin Laden harrapatzeko aitzakian zenbat errugabe hil eta zelako txikizioak egin ote zituzten? Oraindik ere aske omen dabil. Martxa honetan ekialde eta mendebaldeko jendearen arteko mesfidantza handitzeko bidean goaz...

AEBak munduan indarraren legea beharrean arrazoiaren indarra ezartzen saiatuko balira, on asko egingo lukete benetako justizia, elkartasuna eta adiskidetasunari begira, baina horrek politikagintza egokia eskatzen du. Horrelaxe bakarrik lortuko genuke mundutarrok elkarrenganako konfiantza eta benetako bakea.

Juan Mari Elustondo

BARRENEN OHARRA:

Hurrengo asteko barixakuan, azaroaren 11ean, Domusantu Eguna denez ez dugu BARREN kaleratuko. Dena dela ez pentsa jai hartuko dugunik, Gabonetako alea eta BARRENen 10. urteurreneko ale berezia eta ekintzak prestatzeko aprobetxatuko baitugu etenaldia. Datorren alea, 423. alea, alegia, azaroaren 8an izango duzue zuen etxeetan.

ASTEKARIA BaRRen

Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
v 943 74 41 12
Publizitatea:
v 943 74 37 04
Faxa: 943 74 37 04
E-maila:
barren@topaqunea.com
Helbide informatikoa:
www.topaqunea.com/Vbarren
ARGITARATZAILEA
Elgoibarko Izarre

ELGOIBAHOIZARRA

LAGUNTZAILEA Elgoibarko Udala KOORDINATZAILEA
Ainhoa Andonegn ZUZENDARIA Asier Orbea
KAZETARIA Iratzi Agirreazaldegi, PUBLIZITATEA Amaia
Erkizia MAKE TATZAILEA Jaione Unanue
ADMINISTRAZIOA Amaia Rodrigez GERENTZIA Jon Pei
Unguen KOLABORATZAILEAK Jasone Osoro, Ainhoa
Lodoso, Nestor Fuente, Pello Mendizabal, Juan M.
Elustondo, Alberto Ansuategi, Edurne Bilbao,
Gotzon Arrieta, Lorea Perez de Albeniz, Jokin
Martinez, Montse Arregi, Juanito Gorostiza,
Ainhoa Andonegi, Kokoe K.E. eta Urruzuno
AZALEKO ESAERA ZAHARRA Gotzon Garateren
liburutik INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.025
ale LEGE GORDAILUA SS-1.038192 ISSN 1139-1855

Elgoibarko Udalak, Eusko Jurlaritzako KaUura Sailak
eta Farce Aldund(ak diruz, lagundutako aldizkaria.



lic kutxa
/urt esker

1DANOBAT
0111.3 NEPPAhit11 P

GOITI
GRUPO DANORAT

IgnattIA

Ainhoa Lendinez

Urruzunoren begi ezkutua etimo-logikoaz



Hitzen etimo logikoaz ari
garenean
antzina norbaitek bere
gogora,
ahal erara,
hizki ezberdinak elkarren
artean lotuak
Hitz indigenak beraz,
hitzen munduan lehenengo gizakiak
Hitz indigena ezezagunak
berreraiketaz, hipotesi lez botatakoak
egungoen etimoa bilatu nahian
etimo logikoa.
Hitz bat, bi, hiru
hitz anitz liburuxka bat sortzeko
zalantzak etimoetan
zalantzak jatorrian...
Bal i abi de fonetikoak
eta fonologikoak
Lurraldea atzerritarrez osatua
eta bi isopotam a baino ez poema honen osagarri
etimoa eta logika
leinua eta nortasuna.
Jatorria asetu nahia,
ase-nahi ezina...

BOUTI QUE DEL PAN
[Enpanadak Enbutidoak
Baserriko ogia Bolleria
San Bartolome, 6 / B. Ezenarro, 1 Ir 943 74 33 92 ➔

IVTURAK
PEDRO PEREZ BERISTAIN
Xixilion, 2• 3.sotoa 943 74 36 52 - 74 27 89
KOMUNITATEAK ETA FATXADAK - BERRIZTATZEAK - PINTAKETA



▶ Lerungo autobus geltokitik aurrera dagoen errebueltan, barandila edo antzeko zerbait jarri beharko luketela esan digu neska batek: "auto eta kamioiak oso azkar ibiltzen dira ingurune honetan; gainera, jende asko ibiltzen da pasiatzen, eta oso arriskutsua da".

✳ Neska batek esan digunez, Ikastolarako bidean dauden kontenedoreak, beste aldean jarri beharko lituzkete: "Bi zabor kontenedore daude espaloi gainean, eta oso usain txarra egoten da. Jende asko pasatzen da bertatik, eta beste aldean jarri beharko lituzkete".



✳ Gazte batek Udala txalotu nahi du Plaza Handiko zakarrontziak jarri dituelako: "Ume asko ibiltzen da Plazan jolasean, eta zikinkeria asko pilatzen zen. Zakarrontziak jarri dituztenetik askoz garbiagoa dago ingurunea".



HIL ONDOREN ZER?

De-na 9terfalite Ildakoak urte n izan .egun horreian berezild etor-iddgu gogora,hildakoik. iitsltol egiten dv azaroren I ean kanposantunfbisita, eta gu egun batzuk lehenago bertan izan gara. Olasoko hilerrian benikunizak izan dira azken aldian, nibco berriak eraikiizeaz gain, ingurua ere brukundu baituie. Mari Tere Iraegi Ongizate Saileko zinegotzia eta kanposaluko arduraduna izan daugu

gidari gure bisitan eta Eulogio Astigarraga Imperatzailea ere ikusi dugu bertan. Baina hilerria heldu aurretik hileta zethitzuetako langileek izaten dute lanik. Bi etxek eskaintzen dituzte zerbitzuok Elgoibarren: Ehotherrria funerariak duela urtebete ireki zuen tanaionoa eta Mujika etxeak, berriz, errausketa labea jarri berri du tanatorioarekin batera. Bertako langileekin ere izan gara bethetan. Izan ere, denori ifisien zaigu noizbait herioiz,ako ordua.

Batazbeste urtean 90 hildako egoten dira Elgoibarren, hilabetean 7 edo 8. Horietatik gehienak Olasoko hilerrian lurperatzen dituzte. Kanposantuan hiru modutan daude lurperatuta hildakoak, hiru modu edo lekutan: Panteoietan, nitxoetan edo lurrean.

PPYPO 101AK

Mari Tere Iraegik esan digunez, "175 panteoi inguru daude Olason, baina pribatuak direnez zenbat jende lurperatuta dagoen familia bakoitzak daki". Panteoien azterketa egin dute eta hainbatek jaberik ez duela ikusita enkantean jarriko dituzte. "Jendeak panteoiak erosteko interesa du. Batez ere edadetuek, familiakoekin lurperatu nahi duelako".


Kanposantua azken urteotan berritu eta handitu egin dute. Olaso baserriaren aztarnen azpian nitxo berriak eraiki dituzte eta hauen gaineko aldean belarra txukun jarri eta pasealekua ipini dute, baita bankuak ere. Elbarrientzako bidea ere eginda dago. Orain kapila kanpontzen ari dira eta iturriak jartzeko asmoa ere badute. Bestalde, Sarrerako arkuak historikoki balio handikoa denez, honen teilatua konpontzeko asmoa dago.

Alargun batzuk igandetan etortzen dira eta elkarrekin koadrilatxoa osatu dute

Kanposantua zaintzen Eulogio Astigarragak egiten du lan egun osoz: Garbiketan, lorak zaintzen, belarra mozten... Lurperatzeko orduan, berriz, Eulogioz gain, brigadako beste langile bat egoten da

Kanposantura zein jende joaten den galdetuta honela erantzun digu Mari Terek: "Badago egunero etortzen den jendea. Beste batzuk asteburuetan egiten dute bisita. Esaterako, badira alargun batzuk igandetan etortzen direnak eta elkarrekin koadrilatxoa osatu dute. Batez ere edadeko jendea etortzen da". Bisitara etortzen direnek lora asko ekartzen dituzte, batez ere Domusantu egunaren inguruan. "Jendeak nitxoak asko zaintzen ditu urte guztian, eta Domusantu Egunerako panteoiak dira batez ere txukuntzen dituztenak".


Sarritan entzun ditugu kanposantu inguruan kokatutako beldurrezko ipuinak, eta gertatu izan da bitxikeriarik Olason: "Meriendak egitera etorri izan da jendea, guk behintzat latak, ogi zatiak... aurkitu ditugu. Bandalismo kasuak ere ezagutu ditugu. Egun batean kapilako gurutzeta buruz behera jarrita eta inguruko gauzak apurtuta aurkitu genituen".



Guztira 925 nitxo daude. Zaharrak Udalarenak dira eta 10 urterako alokatzen ditu jendeak. Ondoren dira gerokoei lekua uzteko. "Gorpuak atera aurretik familiakoei abisatzen diegu eta beraiek erabakitzen dute zer egin. Nitxo batzuetatik hezurak atera eta erraustu egiten dituzte, hautsak panteoian edo nitxo berrietan gordez", azaldu digu Iraegik. Gainontzeko nitxoak, berriak, 99 urterako erosten dira eta oraindik batzuk salgai daude.



Gorpu batzuk lurrean sartuta daude, baina kentzeko asmoa daukate inguru txukuntzeko.



Urriaren 14an ireki zuen Mujika funerariak errausteko labea edo krematorioa Elgoibarren, tanatorioa ere bertan dute. Inaugurazio ofiziala azaroaren 14an egingo dute. Guk errausketari buruz hitz egiteko eskatu diogu Koldo Goenaga arduradunari.

Koldo Goenaga Mujika Funeraria



Zein dira errausketaren abantailak?

Jende guztiak erraustuta bukatzen du. Izan ere, kanposantuan dauden gorpuak erraustu egiten dira gero. Guretzat hasieran egitea garbiagoa da, lekua eta dirua aurrezten da.

Jende askok errausten al ditu gorpuak?

Jendea piskanaka errausketaren aldeko apostua egiten ari da. Edozein familia mota joan ohi da hildakoak erraustera, baina ideologikoki ezkeriak batez ere. Bestalde, pertsona nagusiek errezelo piska bat dute gai honen inguruan, beraz, lurperatzea nahiago izaten dute.

Nola errausten da gorpua?

Gorpua kutxa eta guzti sartzen da labean, kentzen den bakarra kristala da. Markapasos edo antzerakorik badu,

makinak berak iman bidez kentzen dio. Egurraren hautsak, pisu gutxiago daukatenez, alde batera joaten dira eta hezurak bestera eta gero hauek hauts bihurtzen ditugu beste makina batean.

ingurunea kutsatzeko arriskurik ba al du labe honek?

Ofizialki zabaldu aurretik segurtasun arau guztiak bete behar ditu labeak. Azterketa egingo dute gas eta kutsadura neurriak hartzeko. Beraz, ez dago kezkatzeko arrazoirik.

Zer egiten da errautsekin?

Bakoitzak pentsatzen du zer egin. Hildakoa mendizalea bada errauskak mendian zabaltzen dituzte, beste batzuek itsasoan, eta badira etxean urna batean gordetzen dituztenak ere.

Epe jakinik al dago gorpua erretzeko?

Pertsona bat hiltzen denetik erraustu edo lurperatu arte 24 ordu pasa behar dira eta inoiz ez 48 ordu baino gehiago. Hemen normalean hileta elizkizuna aurrez egiten da.

Zenhatek9 lmcfieo

Inzinerazioa hil eta gero hartu daitekeen aukerarik merkeena da, hemen, esaterako, 220 euro inguru kostatzen da. Kanposantuan lurperatuz gero, lapida, lorak... garesti ateratzen da. Kutxa ere familia bakoitzak aukeratzen du, baina 50 eurotik hasi eta 3000 eurora artekoak daude. Urnak ere prezio askotakoak daude.



"Familiari deskantsatzeko aukera ematen dio tanatorloak"

Wan)14ari Uranga Etxeberria Funeraria

Etxeberria funeraria ezaguna da herrian urte askoan ari baita lanean. Baina gutxik jakingo du bertan tanatorioa dagoenik, orain urtebete inguru ireki zuten-eta. Juan Mari Uranga funerariako langilea da eta berak kontatu digu bertako berri.

edukitzea eta gau osoa esnarik pasatzea izaten da.

Zein prozesu jarraitzen duzue?

Abisua jaso eta gu ospitalera edo etxera joaten gara. Hildakoa jantzi eta prestatu ondoren, hozkailuan sartzen dugu eta bisitan datozenek kristal batetik ikusteko aukera izaten dute. Goizeko 9:00etatik gaueko 21:00etara daukagu tanatorioa zabalik. Honela, familiakoek gauez etxean hartu dezakete atsedean eta elizkizunaren ordurako deskantsatuta egongo dira.

Kontserbatzeko, beraz, hozkailu bereziak dituzue, ezta?

Bai, jende asko ospitaletan hiltzen denez, medikazio asko hartutakoak dira. Gorpu hauek etxean edukiz, gero zikina botatzeko arriskua dute. Tanatorioan

hozkailuan daudenez, arriskua ebitatzeko aukera dago.

Zein jendeak aukeratzen du tanatorn

Batez ere gazteek. Jende helduak hildakoak etxean edukitzeko ohitura ezagutu du. Bailaran orain gutxira arte ez da tanatoriorik egon eta, zaila izango da ohiturak bat-batean aldatzea, baina piskanaka jendeak hartuko du bide hau. Guk orain dela urtebete inguru zabaldu genuen tanatorioa eta hildakoen %20 inguru egon da bertan.

Egun bakoitzeko kostua 216 da, Horretaz gain, kutxa, eskelak, lorak... ordaindu behar dira. Gainontzean hileta baten kostua aukeratzen denaren arabera da. 1800 ren bueltan egin daiteke hileta normal bat.

Zer da tanatorioa?

Gorpua etxean ez edukitzeko eta familiak piska bat deskantsatzeko aukera ematen duen lekua da. Gorpua hozkailu baten barruan gordetzen da kontserbatzeko eta problemarik ez edukitzeko. Familiakoak etxean egon eta bisitak bertan hartu beharrean tanatorioan senide batzuk egoten dira txandaka eta honela bisitan datozenak han hartu ohi dituzte.

Jendeak nahiago al du hildakoa tanatorioan egotea?

Gero eta ohitura gehiago dago hildakoak tanatorioetan edukitzeko, baina oraindik jendea erabat kontzientziatu gabe dago. Hemengo ohitura hildakoa etxean

IMHk Internet bidez ikasteko kurso teknikoak jarri ditu martxan

Makina Erremintaren Institutuak (IMH) urriaren 7tik martxan ditu "e-learning IMH" ikastaroak. **Honen bidez**, prestakuntza presentziala modu birtualean bilakatu du IMHk. Euskal **Herriko Lanbide** Heziketako Ikastetxeen sarean, prestakuntza eredu berriak garatzeko berrikuntza teknologikoko zentroa da. Ordutegiarengatik edo ikastetxea urruti dutelako bertaratu ezin diren ikasleei zuzenduta daude ikastaro **hauek**. **Gainera**, erabiltzaileek nahi beste aldiz errepikatu ahal izango dituzte ariketak, ez baitira ekipamendu, toki eta ordutegi zehatzak erabili behar. **Edukiak Lanbide** Heziketako Zikloetan, Langileen prestakuntzan eta lanerako prestakuntzan erabili ahal izango dira, bai eskolan bertan eta baita multimediatikoki ere. Ikastaroak modu azkar eta errezean ikasteko diseinatuta daude testua, imaginak eta animazioak konbinatuz. Ikasleak bi hilabete izango ditu ikastaioa egiteko eta irakasleak jarraipena egingo dio. "E-learning IMH" ezagutu nahi duenak www.fmh.es orrian izango du horren berri.

Madalako zubia itxiko dute larunbatetan

Jende eta auto pilaketak sortutako arriskua ebitatu nahi dute Madala ingurutik trafikoa kenduz



Aah zken asteotan larunbat arratsalde zekin gauez Madalara autoz sartzeko alegina egin dutenek sarrera itxita aurkitu dute. Zubiaren bi aldeetan hesiak jarri dituzte autoak sartu ez daitezen. Aurrerantzean ere, larunbatero, ezin izango da Madalara autoz sartu. Hala ere, bizilagunentzat sarbidea libre izango da.

Sarrera istearren arrazoiaren bila udaltzaingora jo dugu eta honela azaldu digu Jabier Oñederra sargentoak: "Madala aldean jende pilaketa handia egon ohi da eta autoak bertatik pasatzea arriskutsua da. Gainera zubian bertan eta Ermuaranbide kalean autoak azera gainean aparkatzen zituen jendeak, eta honetaz gain, oso bizkor ibili ohi da herri barruan debekatua egon arren". Beraz, arriskua ebitatzeko irtenbidea kalea istea dela erabaki dute eta honela egingo dute hemendik aurrera. Norbaitek seinaleak errespetatu ezean,

neurriak hartuko dituzte gainera. Horretarako Udaltzainak izango dira trafikoa kontrolatzen eta isunak ere jarriko dituzte. Gaizki aparkatutako autoak ere guarekin eramango dituzte.

Ia 18 orduz itxiko da Madala ingurua


Larunbatetan arratsaldeko 14:30ean ipiniko dituzte hesiak eta igande goizera arte egongo da kalea itxita, goizeko 8:00ak arte, hain zuzen ere.

Bestalde, gasolindegi paretik Madalako gurutzebidera artean piboteak jartzen dituzte larunbatetan autoak ez aparkatzeko. Izan ere, auto asko izaten da bertan. Aurrez Fundizio aurrean eta aldameneko lurretan ere harri handi batzuk jarri zituzten autoak han laga ez zitzaten. Azken neurri hauek, ordea, ez dira Udaletik hartutakoak izan. Horrela esan digute udaltzaingoa.



ESKERTZA

2002ko urriaren 15ean, 74 urte zituela hil zen **ABDON ANSOLA BASCARAN**. Bihotzez eskertzen dizuegu senide eta lagun guztioi une latz hauetan eman diguzuen maitasuna eta laguntasuna.



Anastasio Zearsolok irabazi du San Migel-Aiastiako jaietan zozketatutako txekorra




Irailaren amaieran ospatu zituzten San Migel-Aiastia auzoan bailarako jaiak. Bertaratutako en artean txartelak saldu eta txekorra zozketatu zuten sanmigeldarrek. 1.602 zorbakiaren jabeari egokitu zitzaion saria, argazkian txekorrarekin ikus dezakegun Anastasio Zearsolo elgoibartarrari, alegia. Anastasiok txekorra hartu eta Armueta harategira saldu du bertako harakinek hil dezaten.

Internet ikastaroak antolatu dituzte 55 urtetik gorakoentzat NZ Gunean

Oinarrizko internet ikastaroak antolatu dituzte KZ Gunean 55 urtetik gorako herritarrentzat. Ikastaroak 10 ordukoak izango dira eta parte hartzaileek asteko 5 egunetan izango dituzte klaseak.

Bertan, ordenagailua erabiltzen, interneten informazioa bilatzen eta korreo elektronikoko bidezko mezuak bidaltzen zein jasotzen erakutsiko diete. Horretarako beraien neurria prestatutako manual bat egin dute. Izan ere, orain arteko ikastaroak adin batetik aurrerako jende gehienarentzat teknikoegiak ziren. Interesatuak Jubilatuen Biltokian edo KZ Gunean bertan jaso dezakete informazio gehiago.



Gazte bat larri zauritu zen asteazkenean Maltzagan izandako istripuan

Joan den asteazkenean, hilaren 23an, auto istripua izan zen Maltzagan. Goizeko 7:35ean bi autok elkar jo zuten eta ondorioz, 32 urteko I.L.G. gizonezkoa larri zauritu zen. Nafarroako matrikuladun autoak Gasteizko matrikuladun Peugeot 309aren aurka jotzean gertatu zen istripua. Hori zela eta errentzioak eta auto ilada luzeak izan ziren Elgoibar eta Eibar arteko errepidean. Goizeko 8:05erako karril bat zabaldu zuten arren 8:50era arte ezin izan zuten guztiz ireki bidea.

Znpresa gerente eta zuzendarientzat heziketa plana antolatu du Debegesak

Debegesak enpresa gestioko heziketa plana prestatu du gerentzia eta zuzendaritza lanetan diharduten Debabarreneko profesionalentzat. Plana aurrera ateratzeko Gipuzkoako Ganberaren eta Urko Prebentzio Zerbitzuaren laguntza jasoko dute. Bestalde, Debegesaren asmoa Hobetuzen bidez finantziazioa lortzea da. Ikastaroak Debegesaren lokaletan bertan egingo dira. Honakoak izango dira landuko dituzten gaiak: Finantza arloa, alor komertziala, erosketak, kalitatea, giza baliabideak. Interesatuak Debegesarekin harremanetan jarri beharko dira 943 820 110 telefonora deituta edo ealonso@debegesa.com helbidera e-mail hat bidalita. Izena emateko epea urriaren 31n bukatuko da.

Ordu aldaketa izango da larunbatetik igandera bitartean

Bihar, larunbat gauetik igandera bitarteko gauean, ordu aldaketa egin beharko da Europar Batasuneko arauari jarraituz. Urriaren 27an ordubete atzeratuko ditugu erlojuak. Beraz,

goizaldeko 3:00etan 2:00ak izango dira. Ordua aldatzeko arrazoiak bat energia aurrezteak da. Izan ere, energia gehiago erabiltzen dugu gaua heltzean eta goizetan ohetik altxatzen garenean.

L. 3:00



Paroak 1, Domunsantu Eguna

LURPERATU ALA ERRAUSTU, ZER DUZU NAHIAGO?



GREGORIO
65 urte, jubilatua

Nahiago dut erraustea. Familiakoei esan diet zein den nere nahia, eta errespetatu egin beharko lukete. Hala ere, hiltzen naizenean, azken erabakia beraiek hartuko dute.

JOSE MARIA LOIOLA
52 urte, kaldereroa

Ez dot erabaki ondiokan, baina erraustia hobe dala pentsatzen dot. Nere hautsak gero basarrixan botatzia gustauko jatan. Familixakuei ez diet ondikan ezer esan, urruti ikusten dot egun hori.



DANIEL RINO
40 urte, kopisteroa

Erraustea nahiago dut, baina hemen uzten ditugun senide eta lagunentzat, hobe izaten da lurperatzea, horrela bisitatzera joateko leku bat daukatelako. Azkenean beraiek erabakiko dute nerekin zer egin.

TOÑI CABALLERO
37 urte, bankeroa

Erraustea. Senarrari esan diot, eta nere nahia errespetatuko duela uste dut. Ama guttiz kontra dago, baina azken erabakia senarrak hartuko du. Bizirik gelditzen denak erabakiko du hautsekin zer egin.



ARRATE MARURI
40 urte, aseguratorea

Erraustea. Aseguru etxe batean egiten dut lana, eta egunero darabilgu gai hau eskuartean. Nere ingurukoek badakite zer nahi dudana, eta errespetatzea espero dut.

PAULA PELAZ
61 urte, zaintzailea

Erraustea hobe dela iruditzen zait. Leku gutxiago okupatzen da, eta lurreko zuloan sartzeak beldurra ematen dit. Etxean batzutan hitz egin dugu gai honetaz, baina oraindik ez diet argi azaldu zer nahi dudana.



- * IDAZMAKINEN SALMENTA
- ETA KONPONKETA
- * MULTIKOPISTAK
- * FOTOKOPIADORAK
- * PLANOEN BIRREGILEAK
- * ERLOJU INDUSTRIALAK
- * MARRAZKETA MATERIALA
- * INFORMATIKA
- * FAX

17 (Th rTh)

Errosario, 30
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

Iriondo TABERNA

Astegunetan 7:00etan irekitzen dugu
eta asteburuetan 9:00etan

Pedro Muguruza, 2 Tel: 943 74 00 15

ITZIAR SARASKETA
ORTOPEDA



ORKATILAKO ZAITIRATUAK
KORRIKA EGITEAN


Jende askok bihurritzen du orkatila, eta askok, ondorioz, lurrera erortzen da; batez ere adineko pertsonak. Kirolarietan ohiko arazoa izaten da hau, eta baita gogorragoa ere.

Barne zaintiratuak ez dira korrika egiten, normalean ezegonkortasunak sortzen ditu, eta batzutan traumatikoak izaten dira.

Zaintiratuak oinaurreak lurrarekin bat egiten duen momentuan gertatzen da. Egonkortasunetik ezegonkortasunera pasatzen da instant batean, eta muskulazioa berreskuratzeko ahalmen gutxi dago.

Zaintiratuak eragiten dituzten parametro nagusiak:

- * Ligamentuaren elastikotasuna.
- * Oinaren eta zangoaren gaitz morfoestatikoak.
- * Psikomotrizitatea: erreflexuak...
- * Lurraren egoera.
- * Lasterketaren edo ibilaldiaren abiadura.
- * Norberaren lateralizazioa.
- * Oinetakoa: horma, euskarria, orpoaren altuera...



Osasunari buruzko kezka bat argitu nahi baduzu,
deitu BARRENeKo 943 74 41 12ra

MASAJISTAK

Victoria Iraegi

P.M. Urruzuno, 31 • Tel: 943 74 07 70
Astelehen-asteazken-ostiraletan: 15:00-19:00
Astearte-ostegunetan: 9:00-15:00

MEDIKUNTZA ALTERNATIBOAK

Kemen Belardenda

(Medikuntza naturala. F de Bach, masaia, makrobiotika, yoga)
San Bartolome, 25 • Tel: 943 74 40 31
Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

Surya Belardenda

(Osasun naturalaren zure zentroa Elgoibarren. Informa zaitez)
San Frantzisko, 23 • Tel: 943 74 25 34
Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

OPTIKAK

Ikus Optiko-optometrista

San Bartolome, 10 • Tel: 943 74 37 34
Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

Uzuri

(optometria, tonometria, kontaktologia, audiometria)
San Frantzisko, 21 • Tel: **943 74 03 59**
Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

ORTOPEDIAK

Itziar Sarasketa

San i rantzisKo, 12 • Tel: 943 74 35 62
Egunero: 9:30-13:00 / 17:00-20:00

PODOLOGOAK

Ibiltzen

Ubitarte, 11 • Tel: 943 74 36 56
Egunero: 10:00-13:30 / 15:00-19:30

Iñaki Rivero

San Bartolome, 28 • Tel: 943 74 32 90
Ostegunak: 9:00-12:00 / 15:00-19:30

Oinberri

Errosario kalea, 25 • Tel: 943 74 17 95
Astearte-ostiraletan: 9:00-13:30 / 15:00-19:30
Larunbatetan: 10:00-13:00

Gida honetan agertu nahi baduzu,
deitu **943 74 37 04ra**

Herri Eskolako Guraso Hkgrteak hilean mendi irteera bat antolatzeke asmoa du

Lehen irteera Eskola Kiroleko martxa erregulatua izango da Azpeitin, urriaren 27an

Herri Eskolako Guraso Elkarteko Mendiko Taldea iaz hasi zen mendi irteerak antolatzen. Guztira 8 irteera edo txango egin zituztela iaz adierazi digute taldekideek, "Besteak beste, Xoxote, Karakate, Kalamua, Andutz... igo genituen eta oso gustura aritu ginen, irteera bakoitzean batz bestea, 40 lagun biltzea lortu baikeuen". Aurten hilero irteera bat antolatzea da taldearen asmoa. **Berrikuntza gisa, ikasle nagusiagoentzat (LHko 4,5 eta 6. mailak) irteera bereziagoak antolatu nahi dituzte.** "Urrunagoko mendietara joatea gustatuko

litzaiguke, Gorbeara, adibidez". Mendi irteerez gain orientazio ikastaro bat eta Leizarpe Espeleologi Taldearen laguntzarekin kobazulo batera irteera antolatzeke gogoia dutela adierazi digute.

Bestalde, aurtengo lehen irteera urriaren 27an, domekan, izango da

Azpeitira. Bertan, Eskola Kirola programan gazteak bilduko dira martxa erregulatuan parte hartzen duten Gipuzkoa guztiko parte hartzeke.



ESKOLA KIROLA

AGENDA

Urriak 26, 2. Jardunaldia

SASKIBALOAIA, Ikastolan

• Infantil mutilak •

12:00 Insti B- Pilar A

11:15 Ikastola A- Ikastola B

Insti A (Atsedena)

• Infantil neskek •

10:30 Pilar B- Pilar A

9:45 Ikastola A- Ikastola B

Insti A (Atsedena)

FUTBOL 7, Mintxetan

■ Benjaminak ■

10:00 Pilar A- Ikastola D

10:30 Pilar C- Ikastola B

11:00 H. Eskola A- H. Eskola C

11:30 Mendaro A- Ikastola E

12:00 Pilar D - Ikastola C

12:30 H. Eskola B- Ikastola A

ESKUBALOAIA, ikastolan

■ Alebin mutilak ■

9:00 Pilar A- Ikastola C

9:45 H. Eskola A- H. Eskola B

10:30 Pilar B- Ikastola B

12:00 Mendaro B- Ikastola A

Alebin neskek •

11:15 Pilar B- Ikastola B

12:45 H. Eskola - Ikastola A

Pilar A (Atsedena)

Pilarika eta San Viator egunak ospatu zituzten Pilar Ikastetxean

Urriaren 12an, Pilarika eguna ospatu zuten Pilar ikastetxeko ikasleek, senide eta irakasleekin. Ikastetxeko gimnasioan San Viatorren Kongregazioko apaiz batek meza eman zuen, Benantzio erretorearen laguntzaz. Meza ostean, eskolako ikasleen koroak abestu zuen. Ondoren, luntxa ikastetxeko frontoian izan zuten. Jende ugari bildu zen, festa giroa ez zen falta izan, eta egun oso polita pasatu zuten.

San Viator

Bestalde, San Viator eguna ospatu zuten urriaren 21ean. Goizeko 10:00etan jolasak izan zituzten eskolako patioan. Aste guztian zehar, pilota partiduak eta futbol txapelketak izan zituzten, eta San Viator egunean jokatu ziren finalak. Sari banaketarekin bukatu zen ospakizuna, eta arratsaldea jai hartu zuten.



Pilar Ikastetxeko ikasleek bost egun pasatu zituzten Alkizan

LH5. mailakoek Alkizako barnetegian pasatu zituzten bost egun. Tolosaldeko mendialdean dagoen herria da Alkiza. Eguraldi txarra izan arren, ondo pasatu zuten eta ekintza asko egin zituzten: zaldian ibili, dantzak eta abestiak ikasi, jolastu eta antzerkiak egin. Azken egunean 8.290 m. egin zituzten bizikletan. Ikasleen esanetan, irakasleak oso atseginak ziren, eta pena handiz bueltatu ziren etxera.



BaRRRen

Mendaro Telebista urriaren 1n hasi zen emititzen

Ordubete inguruko emisioa egiten dute egunero, eta astelehenean errepikapenak ematen dituzte

Lan eta proba asko egin ostean, joan zen urriaren 1n egin zuen lehenengo emisioa. Ordubeteko saioa eskaintzen dute gutxi gora-behera egunero, eta astelehenean errepikapenak ematen dituzte. Eguerdiko 13:30etan eta gaueko 21:30etan izaten dira emisioak. Gaueko saioan beraien produktuak emititzen dituzte. Momentuz, erreportajeak, Alkateari elkarrizketa, sukaldaritza programak eta Herri Berri informazioa eskaini dituzte. Herri Berri informazioa da zuzeneko emisio bakarra, baina aurrerantzean, elkarrizketa batzuk ere, zuzenean egiten saiatuko di-



ra. Eguerdiko emisioan, aurreko eguneko programak errepikatzen dituzte, eta gainontzeko orduetan, Lokalia katearekin bat egiten dute. Mendaro Interneten proiektuaren barnean, telebista lokala martxan jartzea zen hel-

buruetako bat. Apirilean hasi ziren lanean, baina arazoak arazo, ezin izan zioten emisioari ekin. 5 langilek osatzen dute Mendaro Telebista, 2 kamara, 2 kazetari eta errealtzatzaile bakarra daude momentuz. Eli Aizpuru kazetariak esan digunez, "oraindik hasiera da, eta poliki-poliki egingo dugu aurrera, baina horretarako herritarren laguntza eskatuko nuke, bestela oso zaila izango baita elkarrizketak egin edo programazioa osatzea". Momentuz, Mendaro bakarrik ikusten da, baina aurrerago, interneten sartuko dituzte egindako lan guztiak, eta internet bidez ere ikusi ahal izango da.

Mendaroko KZ Guneak irailera arteko estatistikak kaleratu ditu

J Joan zen apirilean jarri zen martxan Mendaroko KZ Gunea, eta oso harre-
ra ona izan du herritarren artean. Jende asko ibili da interneti buruzko ikastaroak egiten, eta bere kontura nabigatzera ere, gero eta jende gehiago etortzen da. Guztira 55 ikastaro eman dira. Oinarritzko internet ikastaroak (18) eta laugarren mailakoak (18) izan dira gehien eman direnak. Erabiltzaileei dagokionean, 155 izan dira guztira. %45,16 gizonetakoak eta %54,84 emakumetakoak. Erabiltzaileak hiabeteka zenbatuz, poliki-poliki gehituz joan direla esan daiteke. Apirilean 85 pertsona zeuden, maiatzean 113, ekainean 124, uztailean 127 eta irailean



155. Erabiltzaileak adinaren arabera sailkatzen baditugu, 25-34 urte bitartekoak dira nagusi (56). 45-65 urte bitartekoak 15 bakarrak dira, eta 65etik gorakoak 7. Azarorako ikastaro berriak antolatu dituzte. Interesatuak KZ Gunera joan edo 943-75 60 13 telefonora deitu dezakete.

Memoria tailerra

Lagun Betikoak Egoitzak memoria tailerra antolatu du. Urriaren 28tik abenduaren 16ra izango da. Jardunaldiak astelehenero izango dira 15:00etatik 16:30etara. Prezioa 6 izango da. Interesatuak Lagun Betikoak Egoitzan eman dezakete izena urriaren 23a baino lehen.

Espeleologia eguna

12-16 urte bitarteko gazteentzat espeleologia eguna antolatu dute Mendaroko In Leike, Elgoibarko Izarra eta Soraluzeko Pil-pilean elkarteek. Goizeko 11:00etan Gargartzako elizatik irten eta itzulera arratsaldeko 19:30ak aldera izango da. Espeleologia kobazuloetan, erreka jaiotzak, mugimendu jolasak, trikitixa eta talogintza ikastaroa egingo dira. Irteeraren prezioa 5 izango da. Gaur da izena emateko azkeneko eguna, beraz, interesatuak 943 74 16 26 edo 605 70 60 86 telefonotara deitu dezakete.

KiliBaRRen

— Mendaroko Udalaren dirulaguntzarekin argitaratua

Euskal Herriko ilizkolarari Txapelketa arrakastatsua antolatu zuen Mendarok

Olasagasti, izako bcapelduna, azken orduko baja izan zen arren, ez zen espektakulu faltarik igarri Mendaron. Fausto Mugertzak bete zuen bere lekua, eta azken postuan amailu bazuen ere, oso ondo aritu zen mutrikuarra. Jende ugari bildu zen Herriko Enparantzan, Euskal Herriko aizkolarari txapelketa ikusteko, eta ziur ez zela inor damutu. Nazabal, Larretxea, Peñagarikano, Barberena, Azurmendi eta Fausto Mugertza nor baino nor aritu ziren lanean, eta txapelketa oso parekatua izan zen. Azkenean, Floren Nazabal izan zen onena, eta bera da aurtengo txapelduna.

Txapelketa gogorra izan zen. Larretxea hasi zen irabazten, baina azkenean Nazabalek ia minutu bateko aldea atera zion. Etxarri Aranzeko aizkolaria urte askoan zebilen garaipen honen atzetik, eta azken txanpan beti galdu egiten zuen. Aurtengoan, oso gogor eta serio aritu da lanean, eta lehenengo aldiz irabazi du Euskal Herriko Txapelketa.

12 enbor moztu behar zituen aizkolarari bakoitzak. 4 kanaerdiko, 60 ontzatakoko beste lau enbor, eta oinbikoak beste lau. Aizkolarien arteko aldea oso txikia zen, baina bosgarren enborrean Nazabalek hartu zuen aurrea. Minutu baten barruan sailkatu ziren Larretxea eta Peña-

garikano ere. Gainontzekoak ere txukun aritu ziren. Fausto Mugertza mutrikuarra izan zen azkena, baina bere lehenengo Txapelketa Nagusia zenez, bere helburua amaitzea zen, eta lortu zuen. Ikuskizun bikaina eskaini zuten aizkolariek, eta maila handia dagoela erakutsi zuten.

Marka ahaleginak

Iñaxio Perurena harrijasotzaileak, 255 kiloko harria jasotzea lortu zuen. Lehenengo ahaleginean huts egin bazuen ere, bigarrenengoan harria sorbalda-raino altxatu zuen. Iñaxioren hurrengo helburua, urtarrilean 19 urte bete aurretik 260 kiloko harria jasotzea da.



Floren Nazabal nafarrak jantzi zuen txapela. Donato Larretxea (ezkerrean) izan zen bigarren eta Peñagarikano (eskuman) hirugarren.

Sailkapena


stua	Denbora
Floren Nazabal	34:56
Donato Larretxea	35:44
Jose M. Peñagarikano	35:46
Iñaki Azurmendi	40:22
Jose Juan Barberena	45:35

Euskal Herriko txapeldunak urtez urte

Urtea	Txapelduna	Denbora
1950	Gartziarena (Naf.)	39'44"
1950	Gartziarena (Naf.)	42'58"
1965	Polipaso (Gip.)	45'12"
1966	Berakoetxea (Naf.)	44'29"
1967	Berakoetxea (Naf.)	53'29"
1967	Latasa (Naf.)	53'30"
1968	Astibia (Naf.)	43'55"
1968	Astibia (Naf.)	
1969	Astibia (Naf.)	55'46"
1970	Arria II.a (Gip.)	35'19"
1971	Astibia (Naf.)	48'06"
1977	Mindegia (Naf.)	46'41"
1977	Arria I.a (Gip.)	40'03"
1978	Arria II.a (Gip.)	45'00"
1979	Arria II.a (Gip.)	30'02"
1980	Mindegia (Naf.)	34'16"
1981	Mindegia (Naf.)	45'28"
1983	Mindegia (Naf.)	35'22"
1984	Mindegia (Naf.)	37'52"
1985	Mindegia (Naf.)	42'27"
1986	Mindegia (Naf.)	34'11"
1987	Mindegia (Naf.)	32'14"
1988	Mindegia (Naf.)	33'03"
1989	Mindegia (Naf.)	36'08"
1990	Arrospide (Naf.)	33'25"
1991	Arrospide (Gip.)	36'10"
1992	Arrospide (Gip.)	32'06"
1993	Arrospide (Gip.)	29'57"
1994	Arrospide (Gip.)	32'09"
1995	Arrospide (Gip.)	33'37"
1996	Olasagasti (Gip.)	34'24"
1997	Larretxea (Naf.)	36'54"
1998	Olasagasti (Gip.)	35'17"
1999	Olasagasti (Gip.)	35'37"
2000	Peñagarikano (Gip.)	35'27"
2001	Olasagasti (Gip.)	39'21"

"Apostuak bizitxasuna ematen dio herri kirolari"

FLORENTINO LARRAÑAGA



Florentino Larrañaga mendarotarrak 55 urte ditu. Betidanik izan ditu herri kirolak gustuko, eta duela gutxira arte gainera, trontzan aritzen zen. Orain lagata dauka, baina ahal duen guztietan joaten da herri kirolak ikustera. Euskadiko Aizkolari Txapel-

keta jokatu da asteburu honetan Mendaron, eta Florentino Larrañaga antolatzaile lanetan aritu da. Esan digunez, aizkora da berari gehien gustatzen zaion herri kirola, eta ahal duen guztietan joaten da ikustera.

Noiz eta nola hasi zinen trontzan?

32 urte inguru eukiko nitxuan. Aingeru Guardako ermitxia inaugurau zaben, eta meza ostian trontzan ein bihar zala, eta hantxe izan zan nere lehenengo aldixa.

Nola ikasi zenuen trontzan?

Basarrixan bizi ginan, eta egur asko moztu bihar izaten genduan. Aizkoriakin mozten genduan asko, trontziakin ere beste batzutan, eta halaxe ikasi gendun.

Txapelketetan hartu al duzu parte?

Debabarreneko txapelketan urte askotan ibili nintzan, eta Gipuzkoako Txapelketan hiru urtetan, baina sekula ez nintzan Euskadiko Txapelketara iritsi.

Zein da trontzaren sekretua?

Bikotia ondo ezautzia eta alkar laguntzia.

Nolatan antolatu dute Euskadiko Aikolari Txapelketa Mendaron?

Urtero probintzia batek antolatzen dau eta aurtan Gipuzkuari tokatzen jakon. Mendaron beti egon da Herri Kiroletarako zaletasun haundixa, eta horregatik hasi ginan lanian. Federaziora deitxu genduan, eta Udalarari ere ondo iruditxu jakonez, Mendaron eitxia erabaki zan.

Nolako maila dago aizkolari artean?

Maila altua dao. Euskadiko Txapelketara onenak pasatzen dia, eta hiru behintzat oso onak daude: Larretxea, Peña eta Nazabal. Beste hirurak piskat atzerao eongo dia, baina maila oso altua dake. Olasagasti iazko txapelduna ere oso ona da. Baja inportantia izan da txapelketan.

Nondik datorkizu herri kiroletarako zaletasuna?

Gaztetatik jun izan naiz txapelketak ikustera. Gaurko gaztiak fubolera juten dian moduan, herri kirolak ikustera juten ginan. Apostu asko ein ditzugu anaixak eta bixok. Ni trontzan ibilitxakua **naiz**, eta anaixa aizkorian. Betidanik euki

dot herri kiroletarako zaletasuna, eta oin ere asko gustatzen jata.

Zein da gehien gustatzen zaizun herri kirola?

Aizkora. Ni trontzan ibilitxakua naiz, baina aizkoria da gehien gustatzen jatana. Ikusteko politxena da, gogorra eta bizitxasun haundiko espektakulua da.

Lehen herri kiroletarako zaletasun gehiago al zegoen?

Bai, dudarik gabe. Gaur egun askoz jende gutxiao juten da herri kirolak ikustera. Gaurko gaztiak nahixao ditzue beste kirol batzuk. Lehen askoz apostu gehixao eitxen zan, eta horrek sekulako bizitxasuna ematen dio herri kirolari. Oin juten dan jendia espektakulua ikustera juten da, eta askoz apostu gutxiao eitxen dia. Hala ere, Mendaron beti eon da zaletasun haundixa herri kiroletarako.

Herri kirolak desagertuko direnaren errezeloa al daukazu?

Ez dot uste desagertuko dianik. Herri Kirolak ez dau jaten ematen, ezin leike hortik bizi. Oso onak dianak, profesionalak eta txapelketa inportantietan parte hartzen dabenak, diru apur bat irabaziko dabe, baina gehixenek beste lan bat dake. Aizkorian aritzia oso garestixa da gainera. Entrenamentuetarako egurra norberak ipini bihar du, eta egurra garesti dao.



OHARRA

Mendaroko erretratu zaharrak hehor ditugu. Mesedez deitu 943 74 41 12 telefonora eta gu joango gara argazkien bila. Eskerrik asko.



F

Hilabete honetako erretratu zaharra Mendaroko Udalak laga digu. Ez dakigu zein urtetakoa den, eta bertan azaltzen direnak zeintzuk diren ere ezin izan dugu jakin. Hala ere, norberak bere burua ezagutuko du, eta beste askok ezagunen bat topatuko duzue talde honetan.

2002ko GIDA

2002ko GIDA

BaRR



Azkenengo gidan agertu ez bazinen edo zure negozioko telefonoa edo helbidea aldatu bada, deitu **943 74 37 04** telefonora

informazioa

Farmazia - okindegia

EGUNEZ	GAUEZ		EGUNEZ	GAUEZ
25 Etxeberria (Santa Ana kalean)	Etxeberria	1	Etxeberria (Santa Ana kalean)	Etxeberria
26 Bidasolo	Fernandez	2	Etxeberria (Santa Ana kalean)	Etxeberria
27 Fernandez	Fernandez		Etxeberria (Santa Ana kalean)	Etxeberria
28 Yudego	Yudego	4	Fernandez	Fernandez
29 Zabaleta	Zabaleta	5	Yudego	Yudego
30 Etxeberria (Errosario kalean)	Etxeberria	6	Zabaleta	Zabaleta
31 Ibañez	Ibañez	7	Etxeberria (Errosario kalean)	Etxeberria

OKINDEGIA

- 27 domekic Idarraga
- 1 barixaku(Fotero
- 3 domekia Eizagirre

FARMAZIAK

ESCALA, Rekalde, 1 Soraluze. Tel: 943 75 16 38
 FERNANDEZ, Herriko enp. 4, Garagarza. Tel: 943 75 61 42
 ZABALETA, Kalebarren, 9 Soraluze. Tel: 943 75 13 84

*eguerdiko 2ak arte

Eusko

DONOSTIA-BILBO

Egunero

Donostia ,ulun. 5.45 06.45... 20.45
 Elgoibar 07.02 08.02... 22.02
 jaiegunetan 7.45can hasiko dira

BILBO-DONOSTIA

Egunero

Bilbo 06:00 7.00... 20.00
 Elgoihar 07.23 08.23... 21.23
 jaiegunetan 8.00can hasiko dira

Eusko,

AURIBUSAK

MENDAIHO-ELGOIBAR

Egunero

Mendaro 07.50 08.50... 21.50

ELGOIBAR-MENDARO

Astegunetan

Elgoibar 07.25 08.25 10.25... 21.25

Jaiegunetan

Elgoibar 08.25 09.25 10.25... 21.25

PES. AUTOBUSAK

EIBAR-ONDARROA

Eibar	00.30	02.30	04.30	06.30
Elgoibar	00.40	02.40	04.40	06.40
Deba	00.50	02.50	04.50	06.60
Mutriku	00.55	02.55	04.55	06.55
Ondarroa	01.05	03.05	05.05	07.05

ETBAR-MUTRIKU

Eibar	01.00	02.30	04.30	06.00
Elgoibar	01.10	02.40	04.40	06.10
Deha	01.20	02.50	04.50	06.20
Mutriku	01.25	02.55	04.55	06.25

EIBAR-AZPEITTA

Eibar	01.30	03.30	05.30
Elgoibar	01.40	03.40	05.40
Azkoitia	01.50	03.50	05.50
Azpeitia	01.55	03.55	05.55

ONDARROA-EIBAR

Ondarroa	23.30	01.30	03.30	05.30
Mutriku	23.40	01.40	03.40	05.40
Deha	23.45	01.45	03.45	05.45
Elgoibar	23.55	01.55	03.55	05.55
Eibar	00.05	02.05	04.05	06.05

MUTRIKU-EIBAR

Mutriku	00.00	01.30	03.30	05.30
Deba	00.05	01.35	03.35	05.35
Elgoibar	00.15	01.45	03.45	05.45
Eibar	00.25	01.55	03.55	05.55

AZPEITIA-EIBAR

Azpeitia	00.30	02.30	04.30
Azkoitia	00.35	02.35	04.35
Elgoihar	00.45	02.45	04.45
Eibar	00.55	02.55	04.55

Autobusetako informazioa lortzeko deitu Eibarko informazio bulegora. Tel. 902 101 210.

LARUNBAT GAUA

OSASUNA

Anbulatorioa	943 03 26 10
Planning-a	943 74 29 50
Alkoholiko Anonimoak	94374 03 85
D.Y A (anbulantzia)	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 74 38 64
Mendaroko Ospitalea	943 03 28 00
Odol Emailak	943 74 39 36

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak	943 74 04 42
PESA (Eibar)	902 10 12 10
Taxi geltokia	943 74 08 98

UDALA

Euskara Zerbitzua	943 74 43 66
Udal Kirol Patronatua	943 74 44 15
Kultura Zerbitzua	943 74 21 58
Mendaroko Udala	943 75 61 00
Ongizate zerbitzua	943 74 10 08
Udaletxea	943 74 10 50
Udaltzaingoa	943 74 13 94

BESTELAKOAK

Elgoibarko Izarra	943 74 16 26
Kiroldegia	943 74 44 15
Kontsuma Bulegoa	943 74 30 88
Liburutegia	943 74 35 25
Musika Eskola	943 74 21 45
Mintxeta	943 74 43 15
Parrokia	943 74 08 42
Postetxea	943 74 15 47
Gaztetxea	943 74 35 72

ADINEKOEN ETXEAK

San Lazaro Egoitza	943 74 02 96
Zaharren Biltokia	943 74 05 26
Eguneko Zentroa	943 74 45 65

IKASTETXEAK

Haur Eskola	943 74 21 41
HHI (EPA)	943 74 08 80
Herri Eskola	943 74 08 79
I M H	943 74 41 32
Institutua	
Arreiturre	943 74 80 19
Ezenarro (Meka)	943 74 80 19
I kastola	943 74 44 41
Pilar Ikastetxea	943 74 13 31

KOMUNIKABIDEAK

BARREN	943 74 41 12
El Diario Vasco	943 74 40 73
El Correo Español	943 74 10 82
Zazpiki irratia	943 74 34 74
Egunkaria	943 30 02 28
Gara	943 31 69 99

Xingola

Larunbatetan
DOAN
EGUNKARIAREKIN



Komikiak
Denbora-pasak
Posterrak
Erreportaiak
Ipuinak



S'J J1iJLJJJJ



ORAIN 16 ORRI
KOI, DPIE JAN


5

" Astialdian jolastuz ikasteko

1411, f4v

Urriaren 26tik aurrera, larunbat eta igandeetan
euskarazko eta ingelesezko jokoak 11

dOratali d61041
blinbiga"



DOMINO JOKOA
Lanbideak
Hiztegi jokoak:
hitzak euskaraz eta
ingelesez lantzeko.



LETRA JOKOA
Hizkuntza jokoak:
letrak euskaraz
eta ingelesez lantzeko.

Viisetssa

**BIKOTEEN
JOKOA**
Hitzak eta marrazkiak
binaka elkartzeko.

asalalst deisha



**ZENBAKI
JOKOA**
Zenbakiak euskaraz
eta ingelesez lantzeko.

eusl(r.itl9elet

*Kupoa, asteburu oro, ostiraletik igandera publikatuko da.

+ kupoa* + 4 4 □
0

E,gunkaria

40 bat lagun bildu ziren Xiberuaren aldeko bertso afarian Gaztetxean

Goizaldeko 02:30ean amaitu zuten bertso saioa

Xiberuaren aldeko kultura jardueren barruan bertso afaria izan zen pasa den barixakuan (urriak 18) Gaztetxean. Bertan 40 lagun inguru bildu ziren Jokin Uranga eta "Ministro" azpeitiarren eta Joseba Artza etxebarritarren bertsoak entzuteko. **Bakailao** tortil a, sahieskiak eta etxean egindako gazta tartaz osatutako menu bikaina afaldu ostean hasi zutela bertso saioa azaldu digu bertan izan zen bertsozale batek. Duela bi urte Gaztetxean izanak ziren bertsolari

gazteok eta orduko bertso saioa gogoratuz hasi zirela bertsoan gaineratu digu. Afariko menua eta gorabeherak, Xiberua Garatzen eta beste hainbat gai izan zituzten bertsoarako gai. Entzuleei zuzendutako bertso bat edo beste ere izan zen, eta baita bertsolarien arteko liskar eta isekarik ere. Goizaldeko 02:30ean amaitu zuten saioa hainbat gai bertsoan jarri ostean. Bai bertsolariak, eta bai bertsozaleak oso gustura atera ziren Gaztetxetik eta jadanik hasiak dira hurrengo bertsoafaria pentsatzen.



Argazkian saioan parte harte zuten hiru bertsolariak ageri dira. Eskumatik hasita, Jokin Uranga, Joseba Artza eta "Ministro".

"Shaolin" eta "Natura" argazki erakusketak azaroaren 9ra arte ikusgai Kultur Etxean



Ezkerretik hasita, Jokin Martínez (Ongarriko lehendakaria), Gorka Salmeron (argazkilaria) eta Ana Santolaya (Kultura zinegotzia) inaugurazio egunean.

Ongarri Kultur Elkarteak bi argazki erakusketa inauguratu zituen pasa den urriaren 18an, Kultur Etxeko erakusketa gelan bata, eta sotoan, bestea. Isabel Muñoz bartzelonarraren "Shaolin" izeneko argazki bilduman Chinako Shaolin monjei ateratako argazki ikusgarriak ikus daitezke. Jauzi eta indar erakusketa sineztesinak izoztu ditu Muñozek bere kamaraz. Gorka

Salmeron legazpiarrak, berriz, lente errealista eta objektiboagoa lagun, Legazpi inguruko paisaia, pago eta haritzak, mendi hegal txikiak eta elurretako giza oinatzak argazkiratu ditu "Natura" izeneko argazki bilduman. Bi argazki erakusketak azaroaren 9ra arte izango dira ikusgai Kultur Etxean. Ordutegia: 19:00etatik 21:00etara asteleheneetik ostiralera.

Esketx umoretsuz osaturiko "Hau paraderoal" antzezlanaz izango da ikusgai azaroaren 8an Herriko Antzokian

Elena Irureta, Eli Elizondo, Aitzpea Goenaga eta Loly Astoreka aktore ezagunek "Hau Paraderoal!" antzezlanaz eskeiniko dute azaroaren 8an, barixakuan, Herriko Antzokian. Aitzpea Goenagak eta Elena Iruretak idatzitako bost esketx umoretsuz osaturiko saioa da eta bakoitzak ez du hurrengoarekin lotura zuzenik. Ezkontza agentzia batean, tanatorio batean, ginekologoaren kontsultaren atarian, Marokoko aireportu bateko itxaron gela batean, eta Tolosako abesbatzak ospatzen diren Leidor antzokiko kamerinoetan girota daude esketxak. Leku guzti horietan zirrikitu batetik miazten ariko balitz bezala sentituko da ikuslea, bertan gertatzen ari dena ikusiko du eta han dabilzan 20 emakumeak eta haien gorabeherak ezagutu. Itxaroten ari diren emakume hauei, espero ez dituztenak gertatuko zaizkie, bizitzan gertatu ohi den bezalaxe!. **Ikuskizuna** euskaraz izango da eta 20:15ean hasiko da.



2002•2003 es

Sanlo Eskubaloi Ki

PAGOAGA ELG (Kadete nPoLfq,k)



Tente, ezkerretik eskumara:

Ariane Peñaranda (entrenatzailea), Miren Agirre, Ainhoa Uribe txeberria, Nerea Gil, Andrea Zubiaurre, Oihane Garate, Leire Apellaniz, Ainhoa Uzuriaga eta Aitzol Garmendia (Entrenatzailea).

Makurtuta, ezkerretik hasita:

Esther Bilbatua, Sara Perez, Lara Urain, Itxaso Alguacil, Irati Boyar, Ane Odria, Ainhoa Lendinez, Sandra Montes, Ainhoa Dorado.

Argazkian falta da: Ion Ulibarri (entrenatzailea)

PNEUMAX ELGOIBAR (Jubenil muttlak)



Tente, ezkerretik eskumara:

Gorka Garate, Andoni Armendia, Aritz Kruzelegi, Xabi Peñaranda, Julen Ansola eta Eneko Kortabarria (entrenatzailea).

Eserita, ezkerretik eskumara:

Xabier Ulibarri, Asier Jauregi, Aitor Azkue, Ion Aranzamendi, Eneko Aduriz, Haritz Arrieta.

Argazkian falta da: Asier Barrutia.

EMAITZAK

Futbola

Elgoibar 2- idiazabal 0 (1. erreg.)
 Elgoibar 8 - Eibartarrak 2 (Jub.)
 Elgoibar 0 - Arrasate 1 (Kad.)
 Elgoibar 0- Real UniOn 3 (Inf.)
 intxaurre 2 - Pedrusko 1 (1.erreg.)
 Aloña Mendi 0- **Haundi 0**

Esku pilota

Gipuzkoako Txapelketa
 iribar/Alberdi **7**
 Ulazia/Agirrebeña 22 (**Lagunak**)
 Urizarren/Errasti 22
 Ansola/Loiola 8 (**Lagunak**)

Eskubaloia

Cometel Eig. 16 - San Adrian **10 (Jub. nesk.)**
 Pagoaga Elg. 18 - San Adrian **29 (Jub. nesk.)**
 Tecnifuelle Elg. **31**- Bergara 29 (Senior mut.)
 Usurbil 20 - gaur Eig. 15 (Jub. mut.)
 Askartza 22 - Tecnomeca Elg. 22 (**Kad. mut.**)
 Askartza 21 - Pneumax Elg. 20 (**Jub. mut.**)
 Bergara 15 - Sanlo Elgoibar 16 (**Senior nesk.**)

Areto Futbola

Kenci Elgoibar 6 - Carnicerias Saenz **6 (Nazional A)**
 Lanbroa 3 - Cash Converters **4 (1. maila)**
 Koldo Mitxelena 2- Lojantzi **5 (Jub.)**

Aquaerobikaren ordutegi berria

Azarotik aurrera Aquaerobikak ordutegi berria izango du Olaizaga Kiroldehian. Asteartetan eta ostegunetan 20:00etatik 21:00etara izango da klaseetako ordutegia. Uretan egiten den kirol berritzaile honetan parte hartu nahi dutenek Olaizaga Kiroldegian eman dezakete izena (Telf: 943 74 44 15).

Elgoibarko Xake Taldeak berdinketarekin hasi du Liga

Urriaren 18an hasi zen Gipuzkoako Xake Liga. Elgoibarko Xake Taldeak herrian xakea indarberritzea nahi du, eta asmo horrekin aurkeztu dute talde bat lehen mailan. Estreinako partida Donostiako Gros H taldearen aurka jokatu zuten. Azken emaitza binako berdinketa izan zen. Hurrengo norgehiagoka Beasaingo Alfíl taldearen aurka jokatuko dute urriaren 26an, zapatuan, Elgoibarren. Etxeko partidak 16:00etatik aurrera "Pista Beltzean" duten lekoean jokatzen dituzte larunbatetan..

ibaloia denboraldia

eko taldeen aurkezpena

SANLO ELGOIBAR (Senior neskek)



Tente, ezkerretik eskumara:

Erika Etxabe, Lorea gabilondo, Edurne Juaristi, Nere Aranberri, Estitxu Perea, Leire Agirrebeña (delegatua) eta Pablo Aranzeta (entrenatzailea).

Makurtuta, ezkerretik eskumara:

Maria Bilbatua, Ane Garmendia, Amaia Polo, Estitxu Astigarraga, Maite Uriarte, Amaia Jauregi, Ibana Loiola eta Miren Diez.

Argazkian falta dira: Iraia Silva.

TECNOMECA ELGOIBAR (Kadete mutilak)



Tente, ezkerretik eskumara:

Jose Peñaranda (entrenatzailea), Aitor Gonzalez, Ion Martinez, Antxon Alberdi, Iker Rodriguez, Imanol Konde, Ander Gerenabarrena, Ion Sanchez, Oscar Martinez, Adrian Romero, Ion Larrañaga eta Cirilio Sanchez (delegatua).

Eserita, ezkerretik eskumara:

Iñigo Agirregomezkorta, Ekain Jimenez, Endika Astigarraga, Alberto Fernandez, Asier Goikoetxea, Kimetz Iturrino, Oier Etxaniz, Joanes Rodriguez, Jokin Zubiaurre eta Mikel Sastre.

Euskadiko Judo Txapelketa irabazi du Egoitz Morak senior mailan

Leioako Askartza Klaret kiroldegian jokatu zen senior mailako Euskadiko Judo Txapelketa urriaren 20an. Egoitz Morak 90 kiloz azpiko kategorian hartu zuen parte, eta konbate guztiak irabazi ostean, urrezko domina irabazi zuen. Lehen konbalean Arabako txapeldunaren aurka, segundu batzuk nahikoa izan zituen "ippon" bidez borroka irabazteko. Bigarren konbalean Bizkaiko txapelduna izan zuen aurrez aurre, eta hau ere aise gainditu zuen. Finalean fin aritu zen Egoitz eta mugimendu ikusgarri bati esker selekziokide bati irabaztea lortu zuen. Orain Espainiako Txapelketan parte hartu ahal izateko lehiatu beharko du Errenterian, zihurraski. Aragoi, Errioxa, Nafarroa eta Euskadiko judokek hartuko dute parte hertan eta bi onenak sailkatuko dira senior mailako Espainiako Txapelketa jokatzeko.

AGENDA

Futbola, Mintxe an

Zapatua, 26

16:30 Haundi - Oiartzun (pref.)

18:15 Pedrusko - Elgoibar (1.erreg.)

Domekia, 27

12:00 Elgoibar - Aretxabaleta (Nesk.)

Areto futbola, Kiroldegian

Barixakua, 25

22:10 Lanbroa - Lazkao (1. maila)

Zapatua, 26

12:15 Lojantzi - Aloña-Mendi (Jub.)

Esku Pilota, Ikastolan

Barixakua, 25

22:00 Lagunak - Aurrera (Kad.)

22:45 Lagunak - Bergara (Jub.)

23:15 Lagunak - Lazkao (Nag.)

Eskubaloia, Kiroldegian

Zapatua, 26

17:15 Gaur Elg. - Leizaran (Jub. mut.)

18:45 Sanlo Elg. - Askartza (Sen.mut.)

Domekia, 27

11:00 Pagoaga Elg. - Basauri (Kad.nesk.)

12:30 Cometel Elg. Basauri (Jub.nesk.)

k4if Langai

Euskal Lan Zerbitzua

Debabarreneko enpresak **4 elektrizista behar ditu. Erref. 89694/7**

Berrizko aldi baterako enpresak **CNC torneroa** behar du. **Erref. 90220/1**

Durungaldeko enpresak **instaladore elektrikoa** behar du. **Erref. 90521/1**

Durungaldeko aldi baterako enpresak **elektrizista** behar du. **Erref. 90463/1**

Durungaldeko enpresak **mekanizaturako operadorea** behar du. **Erref. 89155/3**

Urola Erdialdeko enpresak **peoi espezialista** behar du. **Erref. 90518/3**

Bilbo aldeko enpresak **kalitate kontsultorea** behar du. **Erref. 88859/5**

Hautagai moduan sartzea eskatu nahi baduzu 901222901 telefonora deitu edo 'Langai'-k Elgoibarren dituen zentru laguntzaile hauetako batera deitu: Elgoibarko Institutua (Peio Juaristi) 943 74 80 19 edo IMH (Nora Raman) 943 74 41 32 telefonora.

Lana

ESKAERA

Neska astelehen, ostegun eta ostiraletan garbiketa lanak egiteko prest. ut **699 00 66 19**

♦ Emakumea sukaldari lanak egiteko prest. Hotelean lanean aritua. Esperientzia pintxo eta menuetan. **zr 943 74 32 26**

Rasta eta trentza txikiak egiten dira. **zr 686 17 87 84**

§ Multimedia zerbitzuak burutzen ditugu: eskolako lanak, mcd, argazki digitalak... **tr 626 36 95 53/679 21 88 68**

§ Neska etxeko lanak egiteko edo bulegoak garbitzeko prest. **zr 687 04 32 05**

Esperientziadun emakumea orduka garbiketa lanak egiteko prest. ts **943 74 22 01**

Gazte batek bere burua eskaintzen du asteburuan eta aste barruko egun batzutan lan egiteko. s **680 27 94 32**

Gazte batek bere burua eskaintzen du asteburuetan edozein lan egiteko. 13. **669 24 55 20**

ESKAINZA

o Barrarako laguntzailea behar da. euskara jakitea baloratuko da. Tr **943 74 07 45 (16:00etatik aurrera)**

o Irakaslea behar da frantseseko klaseak emateko. **zr 943 74 28 00**

Kamareroa behar da asteburuetan lan egiteko. **zr 943 74 42 65/943 74 01 93**

• Sukaldaritzako monitorea behar da klaseak emateko. **zr 653 01 29 07**

§ Pintxadiskos bat behar da tabernarako. **tr 943 74 42 65/943 74 01 93**

Pintxoak egiteko pertsona behar da. Kontratuarekin. 1T **943 74 27 22 (Ignacio)**

Sukaldaria behar da. **tr 652 77 82 60 (Julen) / 652 77 82 10 (Elena)**

OHARRA:

Merkatu txikirako mezuak ekartzeko azken eguna asteazken eguerdiko 13:30a da.

Etxebizitzak

35m2ko etxea salgai San Frantzisko kalean. Sukaldea eta gela eskaileraz banatuta. Merkea. tr **655 71 20 21 (20:00-21:00)**

• Urbitarte 7an etxea alokairuan. [Amueblatuta. tr 943 74 24 42](#)

♦ San Frantzisko kalean, egoera onean dagoen etxea salgai. .11. **656 72 47 82 (20:00-22:00)**

Seme-alabarik gabeko bikote gazte batek etxea alokatuko luke Elgoibar edo inguruetan. s **616 37 03 23**

Etxea salgai Kalamua 2, kalean. [100m2. tr 649 25 90 51](#)

Pisua hartuko genduke alokairuan Candanchun eski denboraldirako. hiru edo lau lagunentzat. Tr **659 71 57 22 (losu)**

Logela bat alokatzen dut. **tr 943 74 18 81**

Logela bat alokatzen dut. **zr 699 91 31 69**

Partikularrak

♦ Klaseak emango nizkieke 16 urte arteko umei. **tr 943 74 27 78 (Saioa)**

* Hezkuntza Bereziko Magisteritza ikasketak egin ditut eta klase partikularrak emateko prest nago. **tr 652 71 59 11**

Lokalak

100m. inguruko lokala alokatzen dut Sigmako Industrialdean, Xixilion kalean. w **659940358(**

Neska talde batek lokal oso merkea alokatuko luke. Tr **658 74 66 11 (16:30etatik 19:00etara)**

Ura daukan lokal txikia erosiko nuke. **tr 629 626 955**

Garajeak

• Garajea alokatzen da Pista Beltzean. **zr 943-74 29 38**

Salerosketak

*Opel Corsa SS-X salgai. Oso merke. tr **680 11 29 38**

Txakurkumeak hartuko genituzke don. IT **677 79 54 85**

♦ Txakurkume bat oparituko nuke. **tr 657 79 89 01**

♦ Citroen ZX 1.400, SS-AL autoa salgai. Oso merke. a **650 32 49 92**

• 90. urteko Yamaha XT 600 trail motorra salgai. Saltzeko presa dut. Oso merke. 1T **657 79 89 01**

2002 denboraldiko Baque taldeko bizikleta salgai. Saltzeko presa dut. Oso merke.n. **637 79 60 79**

♦ Aprilia RS50 errepideko motorra salgai. 6 martxa, 6 hilabete, 2.700 km. Urte eta erdirako garantia ofiziala. 1T **616 19 13 83**

Mitsubishi Montero luzea salgai. Oso egoera onean. 1T **943 13 30 64/639 05 46 70**

Bestelakoak

Caritasek berogailua hartuko luke.

Agurrak

- Zorionak Mireia de Castrori, urriaren 18an 13 urte bete zituelako. Paulen eta Kristinaren partez.
- ♦ Zorionak Joni, urriaren 30ean 15 urte beteko dituelako.
- Zorionak M² Reyesi, hilaren 22an urteak bete zituelako. Ion eta Eiderren partez.



- Zorionak **Borjari**, hilaren 20an 27 urte bete zituelako. Bere neskalagun Evaren partez.



- ♦ Zorionak **amona**, gaur, os rala, zure urtebetetze eguna delako. Zure bilobak Kepa, Beñat, Elorri, Nerea, Josu eta Aneren partez.



- Zorionak eta muxu handi bat **Leireri**, gaur 16 urte bete dituelako. Etxekoen partez.
- Zorionak Mintxetako Egañatar **leireri**, bere 16 "primaberra" betetzean. Lehengusu Juanjo, Nerea eta Andoniren partez.



- Zorionak **Jose Miguel Martini** gaur, hilak 25, 4 urte eta 9 hilabete egin dituzulako. Guraso Victor eta Maite, eta Nela Kalkurtxoaren partez.



- ♦ Zorionak **Abdel**, atzo 4 urte bete zenituelako. Zure lagun Jose Miguel eta bere guraso Victor eta Maiteren partez.



- ♦ Zorionak **Irene Mujikari bere** 4. urtebetetzean. Ondo-ondo pasau urriaren 27an. Etxekoen eta bereziki, Iñaki eta Julen lehensuen partez.



- ♦ Zorionak **Paul eta Daneli**, beren lehen eta laugarren urtebetetzean. Familiakoek partez muxu handi bana.

kel

- Zorionak **Jon Etzanzi**. 5 egun bakarrik falta zaizkizu 5 urte betetzeko. Muxu handi bat etxekoen partez.



- Zorionak **Elena Merinori** abuzluaren 8an urtebetetze eguna izan zuelako. Berandu baina akordatu naiz. Maite Prietoren partez.



- Zorionak "Miss **Alaitsu**"! Espero dugu egun zoriontsua pasako zenuela zure 2 paibcatxoetan. 7 belarri tirakada etxekoen partez.

BEKAK

Ikasketa eta ikerketa beka

Jesus Gangoiti Barrera Fundazioak gai eta arlo desberdinei buruzko 40 ikasketa eta ikerketa egiteko beka eskaintzen ditu. Arloak: ingeniariaritz, merkataritza, hezkuntza, ekonomia, medikuntza, farmazia, biokimika eta musika. Epea: azaroak 8.

Ingurumen kudeaketa

Kalitate sistemen integrazioan, ingurumen kudeaketan eta laneko arriskuen aurrezaintzan trebatzeko 30 beka atera ditu Novia Sakedo Fundazioak. Beka hauek langabezian dauden lizentziatuei zuzendua dira. Epea: urriak 31.

JARDUERAK

Erakusketa

Koldo Mitxelena Kulturgunean "Imagen-Enigma" izeneko erakusketa. Ivan Zulueta artistaren obra plastiko eta grafikoak ikusgai azaroaren 2a arte.

IKASTAROAK

Nazioarteko adopzioa

Haurralde Fundazioak nazioarteko adopzioetan laguntzen duten erakundearen kudeaketari buruzko ikastaro antolatua du. 24 orduko ikastaroa Donostian izango da. Epea: azaroak 7.

Merkataritza

Gipuzkoako Ganberak langabetuei zuzendutako "Merkataritza-establezimenduko gerenteen prestakuntza ikastaroa" antolatua du. 250 orduko ikastaro hau Donostian izango da. Epea: uniak 29.

Obra txikiei buruzko ikastaroa

Eraikuntzaren Institutuak Hormigo Armaturako Obra Txikiei buruzko ikastaroa antolatua du (%100 diruz lagunduta). Praktikak otsailan egingo dira. Epea: uniak 31.

LEHIAKETAK

Literatura

Irungo Argoiak Kultura Elkartek XII. Literatura Lehiaketa antolatua du. Berezitasuna aukerakoa izango da: poesia, ipuina edo nobela. Saria 300,50 . Epea: abenduak 15.

Arte Plastikoak

Ordiziako Udalak arte plastikoetarako eta ikus-entzuetako I Goiart 2002 Ordizia Saria antolatua du. Gaia librekoa izango da. Lehen saria 3000 , 2. saria 1.500 , 3. saria 900 . Epea: abenduak 16.

LANA

Euskara teknikaria

Azkoitiko Udalan Euskara eta Hizkuntza Normalkuntzarako Teknikari bat kontratatzeko oposizio-lehiaketa. Epea: urriak 30.

Xiberuaren Aldeko Kulturlarduerak

Fizawak 6, eguaztena

19:00 Errekamari jailadia

"Euskal Herriko azken lamia"

Antolatzailea: Inazio Bereziartua

Dantza Eskola

Herriko Antzokian

25 BARIXAKUA

18:00 DIPLOMA BANAKETA

EKITALDIA

Txandakako Ingeniaritzako 4. promozioa

IMHn

22:15 KONTZERTUA

Mikel Urdangarin

Herriko Antzokian

IKASTAROAK

Dantza urbanoak

"Adeshoras Dantza Taldeak" dantza urbano ikastaroa (Hip-Hop, Funky..) antolatu du. 16 urtetik gorako pertson zuzenduta dago eta Elgoibarko Institutu, izango dira klaseak azaroaren 5et abenduaren 17ra bitartean (7 saiz Asteartero 18:45etatik 20:15etara. Olaiza, kiroldegian eman daiteke izena urriaren 31 baino lehen.

Igeriketa ikastaroak

Elgoibarko Udal Kirol patronatu: igeriketa ikastaroak antolatu ditu haur e helduentzat. 3 urtetik gorako haurrei e igerian hasi edo hobetu nahi duten heldu zuzendutako ikastaroak dira. Azaroaren 4: hasiko dira eta izenemateak Olaizal kiroldegian egin daitezke urriaren 24tik 30en

Igeriketa monitore ikastaroa

Debarroko Euskera eta Kirol Zerbitzu: igeriketa monitore ikastaroa antolatu du urtetik gorakoentzat. Azaroaren 8an hasiko ikastaroa eta Oñatiko kiroldegian izango di klaseak. Gutxieneko kopurua 25 lagunelo izango da. Prezioa, berriz, 300 eurokoa Del bailarakoentzat eta 336 eu gainontzekoentzat. Informazioa e izenemateak: Oñatiko Zubikoa Kiroldegia Telf: 943 71 63 75.

Oleo ikastaroa

Egur Arte Tailerrak oleo ikastari eskainiko du azaroaren 4tik 22ra bitartea Klaseak asteleheneetik ostiralera izango di 18:00etatik 20:00etara. Izen ematea Egur A tailerrak Ubitarte plazan z/g duen lokale egin daiteke (18:00etatik 20:00etara).

PROGRAMAZIOA


URRIAK

30 eguaztena
2:30ean

DIAPOSITIBA EMANALDIA

"EUSKAL HERRIA OINETAN"

Jule rola



MOLEJ TXE

Pedro Muguruza 8, behea • Tel. 943 74 19 48



30 EGUAZTENA

19:00 KONTSEILUAREN EKINTZA

PLANAREN AURKEZPENA

Elgoibarko Izarraren egoitzan

8 BARIXAKUA

20:15 ANTZERKIA

"Hau paraderoa" (euskaraz)

Herriko Antzokian

ZINE kluba



"Little Senegal"

Zuzendaria: Rachid Bouchareb.

Antzezleak: Sotigui Kouyate, Sharon Hope eta Roschy Zem.

Rachid Bouchareb gure artean zuzendari ezezaguna izan arren, baditu beste hiru luzemetrai eta errodajeen munduan eskarmentu handikoa da telebista frantzeserako burututako lan luzeari esker. Filmeko istorioa marginalitateari eta areriotasunari buruzko erretratu gordina dugu, modu klasikoan garatua. Biolentziaren erretratoan itsutu gabe, giza duintasunean eta sentimenduetan irtenbidea aurkitzerik badugula arrazoituko digu aurkezten digun produktuan.

IRTEERAK

Jubilatuen Biltokiak Nafarroa aldera txangoa antolatu du, Aiegira eta Lizarrara, hain zuzen ere. Azaroaren 27an izango da irteera eguna eta besteak beste, Borgia ardotegiko ardoak dastatu ahal izango dituzte jubilatuen Biltokian bertan izena ematen dutenek, eta baita bertako menu tipikoa bazkaldu ere. Bazkalostean dantzaldia eta "superbingoa" izango dira eta opari bana parte hartzaile bakoitzarentzat. Prezioa: 22 euro.

JAIK

AEK eguna Bilbon

Aspaldiko urteetan ohi den bezala, urriaren 27an, domekan, "Metroz metro beti euskaraz" lemapean ospatuko da aurtengo AEK eguna. Oraingoan Bilboko Santutxu auzoan izango da. Eguerdiko 12:30ean hasi eta egun guztian hainbat ekitaldirekin gozatzeko aukera izango da, hauen artean: Bertsolariak, trikitilariak, folk eta rock kontzertuak, buruhandiak, puzgarriak, "Betizu"koak eta beste asko. Elgoibarko AEK euskaltegiak, euskarazko giroan betebete bizi nahi duen elgoibartar guztiak animatzen ditu igandean santutxura hurbiltzeko, elkarrekin ondo pasatzeko aparteko aukera izango delakoan.

Gazte Topaketak 2002

Euskara Elkartearen Topaguneak herri ezberdinetako gazteei asteburu bateko egonaldia eskaintzen die Garaioako parke naturaleko (Araba) Otaza etxean azaroaren 8tik 10era bitartean. 17 urtetik gorako gazteei zuzenduta dago, eta, besteak beste, euskara

bitartekari izanik eta aisialdirako eskaintza erakargarria aurkeztuz, herri eta beraz elkarte ezberdinetako gazteen artean harremana lantzea **helburu dute topaketa** hauek. Informazio gehiago nahi izanez gero edo izena emateko Elgoibarko Izarra Kultur Elkartera joan urriaren 31a baino leheneago. Prezioa 25 eurotakoa da.

IKUSKIZUNAK

Diapositiba emanaldia Toletxe tabernan

Julen Manterola irundarrak "Euskal Herria Oinetan" diapositiba emanaldia eskainiko du urriaren 30ean, asteazkenean, Toletxe tabernan. Julen Manterolak Euskal Herria zeharkatu du oinez, eta, ibilbide horretan, herrialde guztietako mendiak eta txokoak ezagutu ditu. Argazkizale amorratua ere bada, eta, beraz, Euskal Herriko irudi benetan politak ikusteko aukera izango da. Saioa gaueko 21:30ean hasiko da.

AUTOBUSAK

Osakidetzaren azterketa

Osakidetzan Administrari Laguntzaile gisa lan egiteko azterketa izango da azaroaren 3an, domekan, Bilbon. Hau dela eta elgoibartar batzuk bertara joateko autobusa antolatu dute. Azterketara joan nahi eta nola joanik ez daukanak 943 74 32 35 telefonora deitzea besterik ez du.

ELGOIBAR, Herriko Antzokian

"Camino a la perdicion"

25, barixakua: 22:15
26, zapatua: 19:30-22:15
27, domekia: 19:30-22:15
28, astelehena: 22:15

"Spirit" (euskaraz)

27, domekia: 16:30

"Little Senegal" (Zine Kluba)

29, martitzena: 21:30
31, eguna: 22:15

"Panico Nuclear"

1, barixakua: 19:30-22:15
2, zapatua: 19:30-22:15
3, domekia: 19:30-22:15

"Jimmy Neutron"

Domekia: 16:30

EIBAR, Unzaga

"Seiiales"

25, barixakua: 19:30-22:15
26, zapatua: 17:00-19:30-22:30
27, domekia: 17:00-19:30-22:30
28, astelehena: 19:30-22:15
29, martitzena: 19:30-22:15
30, eguaztena: 19:30-22:15

25, barixakua: 19:30-22:15

26, zapatua: 17:00-19:30

27, domekia: 17:00-19:30

28, astelehena: 19:30

29, martitzena: 19:30

30, eguaztena: 19:30

"El embolao"

25, barixakua: 22:15

26, zapatua: 22:15

27, domekia: 22:15

28, astelehena: 22:15

BARIIF ■ ek

geitt litekeen eniand1(11,

7



"Camino a la perdicion"

Zuzendaria: Sam Mendes.

Antzezleak: Tom Hanks, Paul Newman, Jude Law.

"American Beauty" filmearekin 5 oscar irabazi ostean, gangsterrei buruzko filme batekin itzuli da Sam Mendes zuzendaria. John Rooney (Paul Newman) irlandar zaharra mafiako burua da. Michael Sullivan (Tom Hanks), berriz, txikitatik semeordekotzat hartu eta gaur egun Rooneyren gizonik onena da. Bien arteko erlazioa oso estua da, aita eta seme baten antzekoa. Egoera hau ikusirik Rooneyren benetako semea jeloskor sentitzen da eta dena hankaz gora jarriko duen arazoak sortaraziko ditu.

N



A


ste honetako erretratu zaharra Jose Antonio Osorok laga digu. 1954ko abuztuaren 16an, Burgoseko Araya de Oca herrian ateratako argazkia da. Elgoibarko ehiztari talde bat azaltzen da bertan. 470 galeper ehizatu zituzten, eta

argazkian azaltzen dira guztiak. Ikusten den bezala, egun gogorra izan zuten, eta txakurrak ere oso nekatuta azaltzen dira. Gogora dezagun zein diren erretratuan azaltzen direnak: Leon Etxeberria (Aulestiakoa) (t), Alberto Ortueta (t), Abdon Gabilondo (t), Alberto Juaristi (t), Jose Osoro (t), Basilio Etxaniz (t), Jose Odria eta Paulino Alonso (f).




ESKERTZA

2002ko irailaren 24an, 73 urte zituela hil zen **CARMEN ALZIBAR URIBARREN**en sendiak, bihotzez **ESKERTZEN** ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



‘A.

2001eko urriaren San, 90 urte zituela hil zen **MARIA AZKARRETA ETXEBERRI**Aren oroimenez, **URTEURRENEKO MEZA** izango da Parrokian larunbatean, hilak 26, arratsaldeko 19:00etan. Joango zaretenoi eskerrak alde zurretik.





salgai edo alok. "ru n
411-11 q41111111ETA LOKALAK

Sigmako industrialdean
Xixilion kalea, 1 zenb., 1. solairua
Elgoibar

Informazioa: 649 913 183



Ezaugarriak

- Eraikinak dituen instalazioak lokal bakoitzeraino kanalizatuak: elektrikoa, telefonikoa, ura eta saneamendua
- Egurrezko parket edo antzeko zorua
- Segurtasun atea
- Aire egokitua (aurre-instalazioa)
- Emakumezko eta gizonezkoentzako komunak
- Sarreran kokapen argibideak
- Igogailua



Lau emakume + bost leku ezberdin + bost egoera =

HAU PARADEROA!



Ezkontza Ajentzia batean, Tanatorio batean, Ginekologoaren kontsultaren atarian, Marokoko aireportu bateko itxaron gela batean eta Tolosako abesbatzak ospatzen diren Leidor antzokiko kamerinoetan...

Azaroak 8, ostirala
22:15ean

HERRIKO ANTZOKIA



KULTURA SAILA



FORU ALDUNDIA



SAREA



tarrada

25 URTE ZUENTZAT ANTZEZTEN